



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko ekainaren 6a

83. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Foru Parlamentari Jokin Castiella Imaz jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen dira Tafallako tren geltokian arreta pertsonalizatuko zerbitzua mantentzeko eta zerbitzu guztien hobekuntza plan bat abian jar dezaten, eta Nafarroako Gobernua, berriz, Estatuarekin negoziatzea dezan Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabaki du hezkuntza-erkidegoa, talde parlamentarioak eta Nafarroako Gobernua elkartuko dituen lan-mahai bat eratu dezan, Irakasleen Babeserako Lege bat taxutzeko. Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da hizkuntza eskoletan ikaspostu-kopurua handitu dezan eskatzaile-kopurua eskaintza baino handiagoa den hizkuntzen kasuan. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako 2020ra bitarteko Energia Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epearen luzapena (18. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Jokin Castiella Imaz jaunak Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatu du presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoa bete dezan, eta Gobernuari ohartaraztea bere irizpidea adierazteko epea zortzi egunetakoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 26/2016 Foru Legea hein batean aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 26/2016 Foru Legeak muntako aldaketa bat egiten du *patent box* izeneko araubideari dagokionez; hau da, aktibo ukiezin jakin batzuetatik heldu diren errentak murrizteari dagokionez.

Zehazki, foru lege horrek indargabetu egiten du, 2016ko ekainaren 30etik aitzinako ondorioekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legean jasotzen den *patent box* araubidea, eta beste araubide bat ezartzen du egun horretatik aurrera, BEPS Ekintza Planeko 5. ekintzan jasotako aginduak eta arlo hori dela-eta ELGEko Jardun Fiskal Kaltegarrien Foroak nahiz ECOFINeko enpresen zerga Jokabide Kodearen Taldeak hartutako erabakiak betez. Lotura aldatuaren edo jarduera funtsezkoaren ("Modified Nexus approach") estandar definituari segitzen dio araubide berriak, non *patent box*aren araubideak mozkin fiskala kalkulatu behar duen, lotura zuzena ezarriz mozkin fiskala duen diru-sarreraren eta diru-sarrera hori lortzen laguntzen duen gastuaren artean.

*Patent box*aren araubide berria ezarri bidena-bar, abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko hamargarren xedapen iragankorrak, ELGEren eta ECOFINen jarraibideekin bat, aldi baterako araubide bat ezartzen du 2016ko ekainaren 30a baino lehen formalizatutako jabetza industrialaren edo intelektualaren ustiaketarako edo erabilerarako eskubidearen lagapeneterako. Aldi baterako araubide horrekin bat, 2021eko ekainaren 30era bitarte aplikatu ahal izanen da 24/1996 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako araubidea, 2016ko ekainaren 30ean indarrean zen idazketarekin.

Orain dela gutxi ELGEren eta ECOFINen erabaki eta jarraibide berriak heldu dira, eta horien arabera aldatu beharra dago Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hamargarren xedapen iragankorra 2016ko uztailaren 1etik aitzinako ondorioekin aldatzen da.

Xede horrekin aldatzen da, hain zuzen ere, abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko hamargarren xedapen iragankorra: ekiditea 2016ko ekainaren 30a baino lehenagoko sei hilabeteen barruan erositako aktibo batzuei aldi baterako araubide onuragarria aplikatu ahal izatea. Kontuan har bedi erosketak entitate lotuei egindakoa izan behar duela; alegia, baldintza normaletan aplikatu ezin izanzen litzatekeen aldi baterako araubide bat baliatzeko xede bakarrarekin egindakoa seguruenik. Eta bestalde zehazten da aldi baterako araubidea aplikatzeko debekua egonen dela, salbu eta aktiboen eskualdaketa arrazoi ekonomiko baliodunen kariaz egin baldin bada eta eskualdatzaileak aldi baterako araubide hau nahiz gisa bereko beste bat ere aplikatzeko modua izan badu.

Lege-aldaketa hau berehala egin beharra dagoenez –izan ere, 2016ko zergaldiari aplikatzekoa da, eta zergaldi horretako autolikidaziorako epea uztaileko azken egunetan bukatuko da oro har–, foru lege proposamen hau irakurketa bakarrean izapidetzea nahi da, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 158.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hartara, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hamargarren xedapen iragankorra 2016ko uztailaren 1etik aitzinako ondorioekin aldatzen da.

Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

Hamargarren xedapen iragankorra aldatzea. 2016ko uztailaren 1etik aitzinako ondorioekin.

“Hamargarren xedapen iragankorra. Jabetza industrialaren edo intelektualaren ustiaketarengatiko murriztapenaren araubide iragankorra.

Entitatearen jabetza industrialaren edo intelektualaren ustiaketarako edo erabilerarako eskubidearen lagapenaren kasuan, 2016ko ekainaren 30aren aurrekoak badira, erabaki daiteke 2021eko ekainaren 30era arte aplikatzea Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen 37. artikuluan ezarritako araubidea, 2016ko ekainaren 30ean indarra duen idazketaren arabera.

Aukera hori baliatuko da 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiko sozietateen gaineko zergaren aitortpena betetzean.

Baldin eta lagapenaren xede den jabetza intelektual edo industrial 2016ko urtarrilaren 1a eta gero erosi bazaie entitate lotuei, aldi baterako araubide hau 2016ko abenduaren 31ra bitarte bakarrik aplikatu ahal izanzen da, salbu eta eskualdaketa arrazoi ekonomiko baliodunen kariaz egin baldin bada eta eskualdatzaileak aldi baterako araubide hau nahiz gisa bereko beste bat ere aplikatzeko modua izan badu.”

Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Foru Lege proposamen honi zuzenketak aurkezteko epea **2017ko ekainaren 15eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: "Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta

ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen duena." Aipatu foru lege proposamena 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen dira Tafallako tren geltokian arreta pertsonalizatuko zerbitzua manten dezaten eta zerbitzu guztien hobekuntza plan bat abian jar dezaten, eta Nafarroako Gobernua, berriz, Estatuarekin negozioa dezan Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2017ko maiatzaren 31n egin dako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen dira Tafallako tren geltokian arreta pertsonalizatuko zerbitzua manten dezaten eta zerbitzu guztien hobekuntza plan bat abian jar dezaten, eta Nafarroako Gobernua, berriz, Estatuarekin negozioa dezan Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen ditu arreta pertsonalizatuko zerbitzua ematen jarrai

dezaten Tafallako tren geltokian, eta, halaber, bidaia-txartelak saltzeko leihatilak irekita jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen ditu Tafallako geltokiak egun ematen dituen tren-zerbitzu guztiak hobetzeko plan bat abiaraz dezaten; bereziki, segurtasun-baldintzei dagokienez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuarekin negozioa dezan Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea, eta bertako instalazioetan egin beharreko hobekuntzak egitea”.

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabaki du hezkuntza-erkidegoa, talde parlamentarioak eta Nafarroako Gobernuak elkartuko dituen lan-mahai bat eratu dezan, Irakasleen Babeserako Lege bat taxutzeko.

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabaki baitu hezkuntza-erkidegoa, talde parlamentarioak eta Nafarroako Gobernuak elkartuko dituen lan-mahai bat eratu dezan, Irakasleen Babeserako Lege bat taxutzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, irakasleen babeserako lege bat taxutzeko lan-mahai bat eratzeko honako mozio hau aurkezten du.

Irakasleen sindikatuen ordezkariak sarri askotan ohartarazi dute, baita Palamentuan ere, irakasleak “babesik gabe” daudela Nafarroako ikaste-teeetan pairatzen dituzten erasoen aitzinean, eta

salatu dutenez, arazo hori “minimizatzeko” joera dago.

2017ko lehen hiruhilekoan, Nafarroan irakasleen aurkako 89 eraso gertatu ziren, 2016an baino 50 gehiago, eta oraindik ere erregistratu gabe dago ikasturte honen azken hiruhilekoa.

Talde parlamentario guztiok bat gatzoz esatean beharrezkoa dela ikasleak eraso horien aurrean babestea. Sindikatuek ere azpimarratu dute irakasleen babeserako lege bat taxutu beharra dagoela, neurri prebentiboak egiaz ezarriko dituen eraso gehiagorik gerta ez dadin eta, erasorik gertatzekotan, erasoen aitzinean esku hartzeko.

Irakasleak egiaz babestuko dituen lege bat, jakin dezaten nola jardun eraso bat gertatzen baldin bada, eta arazo larri horren konponbidea hainbat inguruabarren mende utziko ez duena (ikaste-teeetako zuzendaritzak, protokoloen gaineko ezjakintasuna, salaketa jartzeko beldurra...).

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroan lan-mahai bat eratzea irakasleen aurkako erasoak mozteko neurri eraginkorrak jasoko dituen irakasleen babeserako lege bat taxutzeko xedez, eta zeinetan parte hartuko baitu hezkuntza-erkidegoak (gurasoak, irakasleak, sindikatuak, zuzendaritza-taldeak, irakasleen ordezkariak), talde parlamentarioek eta Nafarroako Gobernuak.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea alda dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea alda dezan.

2017ko maiatzaren 11n emandako epai batean, Konstituzio Auzitegiak ezarri du zergadunek ez dutela gainbalioaren gaineko udal-zerga ordaindu behar, baldin eta higiezin baten salmentan galera gertatu bada. Epai horrekin, lurralde nazional osora hedatzen da Konstituzio Auzitegiak Gipuzkoako lurralde historikorako otsailean hartutako erabakia. Argi dago Nafarroako Foru Komunitatea-

ri buruzko epaia aurrekoen antzekoa izanen dela, Konstituzioaren aurkakotzat eta baliogabetzat jo diren artikulua Gipuzkoako lurralde historikoko araudikoen berdin-berdinak direlako.

Tinsaren arabera, zega hori dela-eta Nafarroan oker ordaindu duten eta epeak preskribatu ez duelako erreklamatzeko eskubide duten zergadunen kopurua 5.400ekoa izan daiteke; halatan, foru erkidegoko udalei erreklamatu eta berreskuratu beharreko zenbatekoa ia 25 milioikoa izanen litzateke.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroko Gobernua premiatzen du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea hiru hilabeteko epean alda dezan, berariaz ezartze aldera ez dela hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ordaindu behar baldin eta eskualdaketan ez bada balio-gehikuntzarik gertatu.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroko Gobernua premiatzen du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan beharrezkoak diren tresnak ezar ditzan zergadunen erreklamazioei ahal den modurik eraginkorrean erantzuteko, ahal den neurrian prozeduren judizializazioa ekiditeko formulak abian jarrita.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroko Gobernua premiatzen du konpentsazio-funts bat ezar dezan udalek erreklamazioei aurre egiteko modua izan dezaten, horrek aurrekontuetan arazorik sortu gabe.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 30ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da hizkuntza eskoletan ikaspostu-kopurua handitu dezan eskatzaile-kopurua eskaintza baino handiagoa den hizkuntzen kasuan.

HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hizkuntza eskoletan ikaspostu-kopurua handitu dezan eskatzaile-

kopurua eskaintza baino handiagoa den hizkuntzen kasuan. Mozioa 2017ko martxoaren 31ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako 2020ra bitarteko Energia Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako 2020ra bitarteko Energia Planari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 10eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro-UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko 9-17/PES-0081 galdera egin du Nafarroako 2020ra bitarteko Energia Planaren betetze-egoerari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikoko Departamentuak, legegintzaldi honen hasieran, Nafarroako Foru Komunitateak energiaren esparruan duen egoerari buruzko azterlan eta diagnostiko bat egiteari ekin zion. Horretarako, une honean indarrean dagoen Nafarroako 2020ra bitarteko Energia Planaren, hartan jasotako neurrien eta haren betetze-mailaren azterketa bat egin genuen.

Egindako diagnostikoaren emaitza izan zen Europako estrategiarekin lerrotatu beharra zegoela, eta helburu horrekin honako lau helburu hauek planteatu ziren:

- Klima aldaketaren aurka jardutea, CO₂ jaulkipenak gutxituz.
- Nahastura energetiko baterantz aurrera egitea, bertan sartuz erregai fosiletatik heldu den energiaren gutxitze oso nabarmen bat.
- Horniduraren segurtasuna bermatzea eta pobrezia energetikoa gutxitzea, eta

– Energia berriztagarriaren arloan liderra izatea;

izan ere, horiek izanen dira 2030era begirako Nafarroako Energia Plan berriaren oinarria. 5 ardatz jasoko ditu plan horrek:

1. Aurrezpen eta efizientzia energetikoa
2. Energia berriztagarriak eta auto-kontsumoa
3. Garraio elektrikoa
4. Sare adimentsuak
5. I+G+b

2030era begirako Nafarroako Energia Planak, zeina gaur egun jendaurreko eta herritarrek parte hartzeko fasean baitago 2017ko ekainaren 26ra arte, Ingurumen-ebaluzioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2020ra begirako Nafarroako Energia Planean jasotako neurri eta jarduketa batzuk jasotzen ditu, baina hura gainditu ere egiten du, harantzago baitoa alderdi batzuetan eta berritasunak ere biltzen baititu.

1. eranskinean, 2020ra begirako Nafarroako III. Energia Planean jasotako neurri sektorialen betetze-mailari buruzko balorazio-taula bat gehitu dugu, bai eta 2030era begirako Nafarroako Energia Planaren aldean sartu diren berritasun, aldaketa eta hobekuntzak ere.

2030era begirako Nafarroako Energia Plana

<http://www.gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos-de-participacion/propuestas-gobierno/plan-energetico-navarra-horizonte-2030>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

III. Energia Planeko neurrien eta haien adierazleen balorazioa

Neurri sektorialak (2010-2015 aldiko jarduketan oroitidazkia)

Kontsumo efizientea	Balorazioa	NEP 2030 delakoari buruzko gogoetak (aldaketak, hobekuntzak eta abar)
<p>Nekazaritza:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Auditoria energetikoak eta UNE-EN 16001 arauaren ezarpena 2) Ureztalurretako efizientzia energetikoan egindako inbertsioak 3) Teknologia energetiko jasagarrien sustapena 4) Prestakuntza. 	<p>Aurrekontu- eta arau-mugak direla eta, neurri hauen betetze-maila oso txikia izan da aurreikusten zenaren aldean.</p>	<p>Nekazaritzari dagokionez, berariazko adierazleak ezarri dira:</p> <p>74) Energia berriztagarrien kuota Nekazaritzaren arloko energiaren amaierako kontsumoan</p> <p>149) Nekazaritza: Energiaren amaierako kontsumoa ustiategi motaren arabera</p> <p>212) Auto-hornikuntzarako energia berriztagarrien kuotaren ehunekoa, Nekazaritzaren arloko energiaren amaierako kontsumoan</p> <p>Halaber, berariazko programa bat badago.</p> <p>2.3.2. Energia berriztagarrien erabilera eta energia metagailuen aprobetxamendua konbinatzeko programa Programa horren helburu nagusia da lan-mahai bat sortzea dauden instalazioetan energia metatzeko aukerak aztertze, horren bidez iturri berriztagarrietatik (eolikoa eta hidraulikoa) heldu den produkzioaren aprobetxamendu ahal den onena lortzeari begira. Tokiko erkidegoan proiektuan inplikatzeko. Lan-mahaia energiaren kostuek ukitutako erkidegoek osatzen dute (Funesko Ureztatzaileen Erkidegoa). Honako hauek dira ukitutako entitateak: Nafarroako Ubidea / Riegos de Navarra), Nafarroako Gobernua, Iberdrola eta REE.</p>
<p>Industria:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Auditoria energetikoak eta UNE-EN 16001 arauaren ezarpena 2) Efizientzia energetikoa dela-eta egindako inbertsio industrialak 3) Teknologia energetiko jasagarrien zerrenda 	<p>Aurrekontu- eta arau-mugak direla eta, neurri hauen betetze-maila oso txikia izan da (ia ezer ez), aurreikusten zenaren aldean.</p>	<p>Nekazaritzari dagokionez, berariazko adierazleak ezarri dira:</p> <p>150) Industria: Energiaren amaierako kontsumoa, sektore industrialen arabera</p> <p>151) Energia kontsumoa azpisektore industrialen arabera; langile kopurua eta BEGa.</p> <p>165) Aplikaturako neurriak (zenbat).</p> <p>166) Horrekin lotutako aurrezkoa (tep).</p> <p>167) Inbertsioa, guztira (M€).</p> <p>168) Laguntza publikoa (M€).</p> <p>169) Auto-hornikuntzarako energia berriztagarrien kuota energiaren amaierako kontsumoan, Industrian</p> <p>170) Energia auditoria egin duten enpresen kopurua, Direktikaren arabera</p> <p>Halaber, berariazko programa batzuk badaude.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Efizientzia energetikoko programa: Auditorien kontrol normatiboa egitea 56/2016 Errege Dekretuaren menpean dauden enpresetan ✓ Efizientzia energetikoko programa Industrian: Sorkuntza banatua sustatzea. Eskala txikiko eta handiko energia berriztagarriak metatzeko sistemen garapena eta ezarpena sustatzea.

<p>Garraioa:</p> <p>4) NIE-Nafarroako Ibilgailu Elektroaren Plana</p> <p>5) Entitateentzako garraio-planak Mugikortasunaren kudeatzaileak</p> <p>6) Errepide bidezko garraio kolektiboa sustapena</p> <p>7) Trenbidezko garraio kolektiboaren sustapena</p> <p>8) Modu efizientean gidatzeko ikastaroak</p> <p>9) Ibilgailuen parkea berritzea</p> <p>10) "Zigilu berdea" garraioaren eta logistikaren arloko enpresentzat</p>	<p>Aurrekontu- eta arau-mugak direla eta, neurri hauen betetze-maila oso txikia izan da aurreikusten zenaren aldean.</p> <p>Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planak egin dira, baina kasu askotan haiek betetzea falta da.</p> <p>Salbuespen gisa, PIVE eta PRIMA AIRE planak egin dira, eta indarrean jarraitzen du "zigilu berdea" delakoak, sustapenaren arloko eskumenak dituen departamentuko garraio atalak kudeatua.</p>	<p>Garraiorako, honako hauek ezarri dira berariazko adierazle garrantzitsuenen gisara:</p> <p>213) Energia berriztagarrien ehunekoa garraioan (salgaiak + garraioa)</p> <p>214) Sektoreari lotutako jaulkipenen bilakaera (tCO2).</p> <p>215) Aplikaturako neurrien kopurua</p> <p>216) Horrekin lotutako aurrezkoa (tep).</p> <p>228) Urtero errenergia arrunteko zenbat gune jartzen diren (Potentzia < 22 Kw) jendearen esku</p> <p>229) Urtero goi potentziako zenbat errenergia guneen kopurua (Potentzia > 22 Kw) jartzen diren jendearen esku</p> <p>230) Urtero berritutako ibilgailu elektrikoaren ehunekoa administrazioaren ibilgailu-parkean</p> <p>231) Administrazioiko langileentzako zenbat bizikleta elektriko berri administrazioaren ibilgailu-parkean</p> <p>Halaber, berariazko programa batzuk badaude; honako hauek dira nabarmentzekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Errenergia arrunteko guneak jartzea jendearen esku. Interkonexioa eta mugikortasuneko korridoreak. ✓ Sustatzea errenergia guneak jar daitezela merkataritza-guneetan, enpresetan, errotazioko aparkaleku publikoetan, taxieta, landetxeetan eta abarretan. ✓ Goi potentziako 10 errenergia gune jartzea Nafarroa osoan. ✓ Kenkari fiskalak eta PFEZaren aldaketa mugikortasun elektrikoaren arloko inbertsioetarako.
<p>Administrazioa eta zerbitzu publikoak:</p> <p>11) Energia zerbitzuak bultzatzeko plana</p> <p>12) Zaharberritze energetikoa: eraikin publikoen isolamendu termikoa hobetzea</p> <p>13) Errehabilitazio energetikoa: Instalazio termikoen efizientzia hobetzea</p> <p>14) Energia berriztagarrien instalazioetarako diru-laguntzak</p> <p>15) Argiteria publikoaren arloko auditoriak</p> <p>16) Efizientzia energetikoa argiteria publikoan</p> <p>17) Prestakuntza.</p>	<p>Aurrekontu- eta arau-mugak direla eta, neurri hauen betetze-maila oso txikia izan da aurreikusten zenaren aldean.</p> <p>Abian da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko kudeaketa energetikorako plana.</p>	<p>Administrazioetarako eta zerbitzu publikoetarako, honako hauek ezarri dira berariazko adierazle garrantzitsuenen gisara:</p> <p>160) Energia berriztagarrien kuota Administrazioan eta zerbitzu publikoetan.</p> <p>191) A motako kalifikazio energetikoa (%).</p> <p>192) B motako kalifikazio energetikoa (%).</p> <p>193) Energiaren amaierako kontsumoa langile kopuruaren arabera.</p> <p>194) Energiaren amaierako kontsumoa erabilera sanitarioan.</p> <p>195) Energiaren amaierako kontsumoa ospitale erabileran.</p> <p>196) Energiaren amaierako kontsumoa osasun etxeetan.</p> <p>197) Energiaren amaierako kontsumoa erabilera administratiboan.</p> <p>198) Energiaren amaierako kontsumoa hezkuntza erabileran.</p> <p>199) Energia-fakturaren kostua eraikin bakoitzeko.</p> <p>200) Energia-fakturaren kostua azalera erabilgarriaren arabera (m2).</p> <p>201) Energia-fakturaren kostua langile kopuruaren arabera.</p> <p>202) Argindarraren fakturaren kostua azalera erabilgarriaren arabera (m2).</p> <p>203) Argindarraren fakturaren kostua langile kopuruaren arabera.</p> <p>Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko kudeaketa</p>

		<p>energetikorako programari eusten zaio eta indartu egiten da, eta gaur egun lizitatzen ari diren jarduketak batzuk egiteko aurrekontua ematen zaio.</p> <p>Aldez aurretiko honako azterketa hau hartzen da abiapuntutzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> ☒ Ez dago energiaren kudeaketa zentralizatu eta koordinaturik. ☒ Ez dago pizgarri-politikarik, halako moduz non zerbitzuarengatik ordainketa emaitzei lotuko zaien. ☒ Horrenbestez, hobekuntzarako tarte zabala dago. ☒ Energiaren prezioak direla-eta datozen urteetarako dauden goranzko aurreikuspenak direla-eta, beharrezkotzat jotzen da ahal bezain laster energia aurrezteko eta energiaren efizientziarako neurriak ekitea.
<p>Etxeetako, merkataritzako eta zerbitzuetako sektorea:</p> <p>18) Araudia eta sustapen publikoak.</p> <p>19) Energia zerbitzuak bultzatzea.</p> <p>20) Errehabilitazio energetikoa: Isolamendu termikoa hobetzea.</p> <p>21) Errehabilitazio energetikoa: instalazio termikoen efizientzia hobetzea.</p> <p>22) Egun dauden eraikinen energia-ziurtagiria.</p> <p>23) Auditoria energetikoak eta UNE-EN 16001 arauaren ezarpena</p> <p>24) Energia berriztagarrien instalazioetarako diru-laguntzak</p> <p>25) Prestakuntza.</p> <p>26) Gizarte-sentsibilizazioa.</p>	<p>Aurrekontu- eta arau-mugak direla eta, neurri hauen betetze-maila oso txikia izan da aurreikusten zenaren aldean.</p> <p>Isolamendu termikoa hobetzeko laguntzei eta egungo eraikinen ziurtagiri energetikoari eusten eusten zaie.</p>	<p>Etxeetako, merkataritzako eta zerbitzuetako sektorerako, honako hauek ezarri dira berariazko adierazle garrantzitsuenen gisara:</p> <p>161) Auto-hornikuntzarako energia berriztagarrien kuota etxeetako, merkataritzako eta zerbitzuetako sektorean.</p> <p>Halaber, berariazko programa batzuk badaude; honako hauek dira nabarmentzekoak:</p> <p>6.4.2.3. Eraikinen eta etxebizitzaren zaharberritzea sustatzeko programa. Auzoetako berronartze energetikoa.</p> <p>Honako hauek dira gai hau dela eta egin diren jarduketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Errehabilitazio energetikorako diru-laguntzen lerro bat sortu da, eraikinen, industria planten, saltokien eta ikastetxeen errehabilitazio termikorako (Etxebizitza Zerbitzuak koordinatua). ✓ Eraikin publikoen zaharberritzea. ✓ Energia aurrezteari, auto-kontsumoari eta abarrei buruzko informazio, zabalpen eta sentsibilizazio kanpainak.
Azpiegiturak eta kudeaketa energetikoa	Balorazioa	
<p>27) Azpiegitura elektrikoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Garraio sarea. ○ Banaketa-sarea. ○ Instalazioetako plangintza. ○ Euskal Autonomia Erkidegoarekiko eta Aragoiko Erkidegoarekiko interkonexioak. 	<p>Argindarraren kontsumoa gutxitu denez, argindar-azpiegituren plangintza berria egin da, zeinak berekin baitakar honako inbertsio hauek geroratzea baitakar.</p> <p>Sareen garapena REEri dagokio. Muga batzuk daude Lizarran, Sakanan eta energia berriztagarrien eta kogenerazioaren ebakuazioan.</p>	<p>Energia-azpiegiturak direla eta, honako hauek ezarri dira berariazko adierazle garrantzitsuenen gisara:</p> <p>130) Administrazioak babes ematea argindarraren azpiegitura indartu nahi den edo potentzia handiagoa eman nahi zaion tokietan.</p> <p>Halaber, berariazko programa batzuk badaude; honako hauek dira nabarmentzekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Garraiorako argindar-azpiegiturak
<p>28) Gas-azpiegitura</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Garraio sarea. 	<p>Ez zaio ekin aurreikusitako instalazioetako bakarrari ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Lekunberri-Larraun ○ Ega Ibarren 	<p>Energia-azpiegiturak direla eta, honako hauek ezarri dira berariazko adierazle garrantzitsuenen gisara:</p> <p>129) Banaketa-enpresek aurkeztutako inbertsio planak betetzea</p>

<ul style="list-style-type: none"> ○ Banaketa-sarea 	eskualdea.	(%). Halaber, berariazko programa batzuk badaude; honako hauek dira nabarmentzekoak: ✓ Gas-azpiegiturak.
29) Kudeaketa adimentsua. Sare adimentsuak eta generazio banatua. <ul style="list-style-type: none"> ○ Generazio banatuari buruzko ikerketa. ○ Domotika eta immotika sustatzea, instalazio baten potentzia- eskakizunaren kurbak leuntzeko. ○ Ibilgailu elektrikoa. ○ Energia elektrikoaren biltegitratzea. 	Aurrekontu- eta arau-mugak direla eta, neurri hauen betetze-maila oso txikia izan da aurreikusten zenaren aldean. 2015ean, mikrosareen eta sarera isurtzen ez den energia elektriko berriztagarria sortzeko instalazioen proiektuetarako deialdi bat egin da. “Errekarga sistemen” arazoa badago; izan ere, estatuari dagokion kontua da, eta ibilgailu elektrikoa garatzeko oztopo bat da.	Sare adimentsuetarako eta generazio banaturako, honako hauek ezarri dira berariazko adierazle garrantzitsuenen gisara: 63) Instalaturako potentzia (MW). 64) Lan-mahaia sortu (BAI ala EZ) 65) Generazio termikoa (tep). 66) Instalazioko auto-kontsumoa (%). 67) Erabilitako erregaia. Halaber, berariazko programa batzuk badaude; honako hauek dira nabarmentzekoak: ✓ I+G+b: Sare elektrikoak eta mikrosareak ✓ Energia elektrikoaren biltegitratzea. ✓ Ibilgailu elektrikoari buruzko programak, garraioaren atalean sartuta daudenak
Produktzio berriztagarria (*)	Balorazioa	
<ul style="list-style-type: none"> a) Eolikoa b) Minieolikoa c) Hidraulika d) Minihidraulikoa e) Biomasa f) Biogasa g) Bioerregaiak (Caparroso; olio begetalekin egindako biodiesela, Cener; arto-almidoiaren, gariaren, garagarraren eta fruten bioetanola) h) Eguzki-energia fotovoltaikoa i) Eguzki-energia termoelektrikoa edo kontzentrazio bidezko eguzki-energia j) Kogenerazioa 	<ul style="list-style-type: none"> a) Birpotentziazioa PANER 2011-2020 delakoan jasotako berariazko neurri bat da, baina ez da garatzen ari. Ia ez da instalazio berririk abian jarri. Birpotentziazio plan berria espero da (**). b) Araubide bereziaren azkentzea dela eta, geldialdi bat gertatu da. Sarera energia isurtzen ez duten energia berriztagarrien mikrosareen eta instalazioen proiektuetarako laguntzen deialdi bat badago. c) Aurreikusita zegoen Nafarroako Ubidean beste zentral bat egitea 2012rako. Nafarroako ubideari lotutako 2 zentral badaude, guztira 48 MWko potentzia dutenak. d) 140/2010 Foru Aginduak (teknologia energetiko jasagarriak aipatzen ditu) teknologia horretarako pizgarriak ematen zituen, baina 2012an indarrik gabe utzi zen. Lan egiten ez duten zenbait zentral badaude. e) 2013an, Nafarroako Baso 	Energia sortu eta kudeatzeko eta energia berriztagarrietarako, honako hauek ezarri dira berariazko adierazle garrantzitsuenen gisara: 43) Instalaturako potentzia (MW). 44) Sortutako energia (MWh. edo/eta tep). Halaber, berariazko programa batzuk badaude; honako hauek dira nabarmentzekoak: ✓ Auto-kontsumoaren sustapena. Generazio banatua. Auto-kontsumoa, sarera isuriz eta isuri gabe. ✓ Energia berriztagarrien erabilera eta energia metagailuen aprobetxamendua konbinatzea ✓ Parke eoliko berriak egitea ✓ Herriguneetarako auto-hornidura

	<p>Biomasaren Batzorde Mistoa jarri zen abian; hartan, sektoreko eragileak biltzen dira. Honako hau izan da emaitza:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Mendietako zerbitzu bat eratzea. ✓ PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren % 15eko kenkaria. ✓ Biomasari buruzko 2 azoka. ✓ Gaiaren berri emateko eta zabalkundeko ekintzak. ✓ Toki entitateentzako laguntzak 2015erako ✓ CENER erakundearen bioerregaien zentroa (Agoitzen) lan egiteko moduan dago <p>f) Aipatzekoak dira argindarraren sektoreko araudian gertatu diren aldaketen ondoriozko murriztapenak.</p> <p>g) Planaren indarraldian, ez da abian jarri instalazio berririk, eta dauden bi instalazioetatik bat geratuta dago eta besteak produkzio-maila txikiak dauzka.</p> <p>h) Araubide bereziaren azkentzea dela eta, geldialdi bat gertatu da. Sarera energia isurtzen ez duten energia berriztagarrien mikrosareen eta instalazioen proiektuetarako laguntzen deialdi bat badago.</p> <p>i) Ezer ez dago. Badirudi bideraezina dela.</p> <p>j) Proposatzen da haiek energia berriztagarrietarako teknologien inguruko proiektuak laguntzeko deialdian sartzea eta diruz laguntza soilik enpresenak ez diren instalazioak (eraikinak eta abar).</p>	
Zeharkako ekintzak	Balorazioa	
<p>1) Ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+b)</p> <p>2) Prestakuntza.</p>	<p>a) Bi urtez geratuta egon ondoren, Industria Zuzendaritza Nagusiak</p>	<p>I+G+b arlorako, honako hauek ezarri dira berariazko adierazle garrantzitsuenen gisara: 249) Urtero egindako proiektu kopurua (zenbat).</p>

<p>3) Enpresen sustapena 4) Zabalkunde eta sentsibilizazio soziala</p>	<p>I+G+b proiektuetarako laguntzetarako deialdia egin du berriz ere, energiaren esparruko proiektuetarako (CENER).</p> <p>b) Industria Zuzendaritza Nagusia 2008tik aritu da efizientzia energetikoko ikastaro espezializatuak finantzatzen (CENIFER).</p> <p>c) Bi urtez geratuta egon ondoren, Industria Zuzendaritza Nagusiak energiaren arloko aurrezpenerako eta efizientziarako inbertsioak egiteko laguntzen deialdia egin du.</p> <p>d) CRANA azkendu izana muga bat izanda ekintza horietarako, nahiz eta gobernuko unitate batzuk haiek aurrera eramaten saiatu diren.</p>	<p>250) Nazioarteko proiektuen kopurua (zenbat). 251) Patente kopurua. 252) OTRI bidezko proiektuen kopurua (zenbat). 253) Aplikagarritasuna. 254) Energia-kontsumoa gutxitzea, I+G+b proiektu bat ezartzearen ondorioz. 255) Enpresa kopurua.</p> <p>Halaber, berariazko programa batzuk badaude; honako hauek dira nabarmentzekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Smart Cities eta energia berriztagarrien bidezko integrazioa. ✓ Generazio elektrikoa energia berriztagarriekin.
----------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

() Bi urteko epean, azterketa bat egin behar zen lurraldeak gisa horretako instalazioak hartzeko zeukan gaitasunari buruz, bertan identifikatuz baztertze-eremuak eta gakoa diren ingurumen- eta lurralde-alderdiak, baliatzeko modukoak diren espazioetan baloratu beharrekoak.**

Bi urteko epean identifikatuko dute zein diren funtzionamenduan dauden parke eolikoak birpotentziatzea mugatzen duten oztopoak, birpotentziazio hori egiteko egoki diren mekanismoak ezartze aldera.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzeko hautagaitzak aurkezteko

epea **2017ko ekainaren 15eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea:

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

